



Ondoren, bere istorioaren inguruko dokumental bat egin zuten **“Mi pequeño gran Samurai”** deiturikoa.

☰ 🔍 ⌚ 🔊 ☆

berria


Babestu Berria 👤

KOMUNIKAZIOA

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Ekai Lersundiren istorioa kontatzen duen lana, bihartik Primeran-en

Gazte trans bat zen Lersundi, eta 2018an bere buruaz beste egin zuen. Izar Filmsek ekoitzitako dokumental laburra da 'Mi pequeño gran samurai'.



'Mi pequeño gran samurai' dokumental laburra. IZAR FILMS



Urtzi Urkizu

2024KO OTSAILAREN 14A - 05:00



Entzun 00:02:25



Ekai Lersundi Ondarroako (Bizkaia) gazte bat zen. Gazte trans bat, burokraziaren aurka borrokan ari zena —hormonen ordezkapen terapiaren zain borroka etsian ari zen—. Eta 2018an bere buruaz beste egin zuen, eta hil egin zen. Haren istorioa 21 minutuan kontatzen du *Mi pequeño gran samurai* film labur dokumentalak. Zinegoak jaialdian estreinatu zuten lana. Ondotik, hainbat proiektzio egin zituzten herriz herri. Bihartik aurrera, berriz, Primeran plataforman ikusgai egongo da.

Arantza Ibarrek zuzendu zuen film dokumentala. Izar Filmsek ekoitzi zuen, eta Izaskun Arandia da ekoizlea. Agertzen diren elkarriketatuen artean, gazte transaren gurasoak eta Naizen elkarteko ordezkariak daude.



TRAILERRA